

Gomendatutako liburua:

-Elderfield, John. "El fauvismo". Alianza Forma. Madrid. 1983.

## FAUVISMOA

1904-1908. urteetan Henri Matisse-k, André Derain-ek eta Maurice Vlaminck-ek, beste ikasketa-lagun batzuekin batera, pintura estilo berri bat garatu zuten. Arte-kritikari batek (Louis Vauxcelles-ek) "Les Fauves" (Basapiztiak) deitu zien. Izen hori, arte-kritikari honek asmatu zuen 1905.urteko "Udazkeneko Aretoa"ri buruzko aipamena egiterakoan. Denboraren perspektibaz aztertuta argi dago artista horien pinturari ez zegokiola horrelako izenik, bizitzarekiko zentzu atsegin eta gozatsua antzematen baitzaie, nahiz eta kolorea indar handienaz espresatu. Haien koadroak ez ziren inondik ere alemaniar espresionistenak bezain "basatiak", azkenengo hauen pintura bortitzagoa baitzen. Askatasuna nabari dakiteke haien lan egiteko eran, batik bat kolore garbien erabilpenean eta marrazketa eta perspektibaren gehiegikerian. Ezaugarri horiek koadroen ikusleak harritu zituzten. Fauvismoan, gaiari dagokionez, motibo atseginak erabili ziren: loreak, bainulariak, landa-eszenak. Hau da, inpresionismoan landutako gaiak.

Urte horietako Pariseko talderik experimentalena izan zen. Artista horiek teoria edo doktrina zehatzik jarraitu ez bazuten ere, artisten gutunetan eta idazkietan haien estiloa teorikoki finkatu zutela ikus dezakegu. Nolabait ere, Matisse-ren lagunek norabide eza jasan zuten. Matisse-k pauso inportanteak emanarazi zizkion higikunde honi, baina ezin daiteke esan gidaria zenik.

1905. etik aurrera Pariseko bi erakusketa aipagarri egin zituzten, bata Salon des Indépendants-en eta bestea Salon de'Automne-n. Urte horietan Matisse-k, Derain-ek, Vlaminck-ek eta, hainbat urtetan Braque-k ere, fauvismoaren lan garrantzitsuenak landu zituzten. Beharbada Derain-en, Vlaminck-en eta Matisse-ren lanak pareka daitezke, kolorearen eta formaren aldetik, nahiz eta haien arteko desberdintasunak oso nabariak izan.

Talde fauvistak ez zuen luzaro iraun. Sortu zenetik lau urtetara, 1908an hain zuzen, desegin zen. Nolabait ere, zenbait berrikuntza piktoriko utzi zuen: pintzelkada txikitzen edo kolorezko plano handietan kolore puruen erabateko nagusitasuna; edo koloreari utzi zioten aukeramenak. Honekin esan nahi da koloreak ez zirela errealtatean agertu bezala ordenatzen, baizik eta hurrenkera ezberdin bat asmatzen zela. Aurpegi berdeak edo zuhaitz laranjak ez ziren errealtatearen benetako erreferentziak, koadroaren barnean eta ez beste inon, objektiboki betetzen zen erlazio sistema autonomoarenak baizik.

Mugimendu horretan, hain ezagunak ez diren beste margolari batzuk aurkitzen ditugu: Albert Marquet (1875-1947) eta Kees van Dongen (1877-1968). Lehenak Matisse ezagutu zuen Moreau-ren tailerrean. Nahiz eta fauves-en kolore distiratsuekin pintatu inoiz ez zituen Matisse-ren estilo piktorikoa ezta diseinua jarraitu, berak paisaiak baino ez zituen pintatzen, kolore grisa nagusitasuna lortuz. Gainera urte batzuetan fauvismoari baino gehiago, inpresionismoari begiratu zion.

Bigarrena, Kees van Dongen, holandarra zen. Bere koadroen ezaugarri nabarmenenak hauexek ziren: umorea eta burla azpimarratzea. Joera hau bere gai guztietan ikus daiteke. Toulouse-Lautrec-ek landutako gaiak: zirkuak eta kabareteak. Bere ezaugarri

fauvistak jantzien diseinuetan agertu ziren. Beste pintore fauvista batzuk ere izan ziren: Henri Manguin (1869-1952), Othon Friesz (1879-1949) eta Jean Puy (1876-1961).

## GAIARAKO ARTELAN INTESGARRIAK

### HENRY MATISSE

- “Askaria” (1904)
- “La Moulade” (1905)
- “Barrualde neskatoarekin” (1905-1906)
- “Itsasertza Collioure-n, 1905.eko uda” (1905)
- “Leiho irekita” (1905)
- “Madame Matisse-ren erretratu” (1905)
- “Emakume kapelarekin” (1905)
- “Gerania” (1906)
- “Marinel gaztea” (1906)
- “Marguerite” (1906)
- “Emakumea errekatik gertu” (1906)
- “Tapete gorriak” (1906)
- “Biluzi urdina” (1906)
- “Nono-ren erretratu” (1907)
- “Biluzi beltza” (1908)
- “Dantza” (1910)
- “Estudio gorria” (1911)

### ANDRÉ DERAIN

- “Autoerretratu txapelarekin” (1906)
- “Hibaia” (1905)
- “Itsasuntziak Colliouren” (1905)
- “Collioure-ko portua” (1905)
- “Matisse-ren erretratua” (1905)
- “Lucien Gilbert” (1905)
- “Waterloo-ko zubia” (1905)
- “Eguzkiaren isladak uretan, Londres” (1905)
- “Charing Cross-eko zubia” (1906)
- “Londreseko portua” (1906)
- “Dantza” (1906)
- “Alice jantzi berdearekin” (1907)

### RAOUL DUFY

- “Martigues-en antzerkia” (1903)
- “Yate ingelesa” (1906)
- “Kartelak Trouville-n” (1906)
- “Ekainaren 14a” (1906)
- “Le Havre-ko portua” (1906)
- “Martigues-en txalupak” (1908)

- “Dama arrosa” (1908)
- “Lantegia Estaque-n” (1908)

KEES VAN DONGEN:

- “Fernande Olivier-ren erretratua” (1905)
- “Liverpool Light House” (1907)

ALBERT MARQUET:

- “La Passerelle” (1905)
- “La Seine du Port-Neuf effect de brouillard” (1907)

GEORGES BRAQUE:

- “Le Port de L’Estaque” (1906)
- “Paysage á L’Estaque” (1907)